

Ospatu gurekin

Hizkuntzen Europako Eguna!

Irailaren 26a



Zer da Hizkuntzen Europako Eguna (HEG)?

Europa osoan hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko helburua duen eguna.

Europako Kontseiluaren ekimen modura, Hizkuntzen Europako Eguna urtero ospatzen da irailaren 26an, 2001etik hasita.



Zergatik ospatzen dugu HEGa?

- Jendeari oro har esateko zein garrantzitsua den hizkuntzak ikastea eta eleaniztasuna eta kultura arteko ezagutza sustatzeko.
- Europako hizkuntza aberastasuna eta kultura aniztasuna ezagutzera emateko.
- Bizitzan zehar hizkuntzak ikastea sustatzeko, ikastetxeetan eta ikastetxeetatik kanpo.

Bazenekien...?

- Badirela munduan 6000-7000 hizkuntza inguru eta Europan 225 hizkuntza indigena?
- Hizkuntza gehienak Asian eta Afrikan hitz egiten direla?
- Munduko populazioaren erdia gutxienez elebiduna edo eleaniztuna dela, hau da, bi hizkuntza edo gehiago hitz egin edo ulertzen dituztela?
- Elebitasunak errazten duela beste hizkuntza batzuk ikastea eta ezagutza prozesuak hobetzen dituela?

Argibide gehiago nahi izanez gero, jo ezazu gure webgunera.

Nori zuzentzen zaio?

- Ikasleei / Irakasleei
- Unibertsitatei / Eskolei / Kultura etxeei / Hizkuntza eskolei
- Elkartei...

Egia esan, Europako hizkuntza aniztasuna ospatu nahi duen EDOZEIN pertsonari edo erakunderi.

www.coe.int/EDL



Zatoz gurekin:
[facebook.com/ecml.celv](https://www.facebook.com/ecml.celv)



EUROPEAN CENTRE FOR
MODERN LANGUAGES
E C M L
C E L V
CENTRE EUROPEEN POUR
LES LANGUES VIVANTES

COUNCIL OF EUROPE
CONSEIL DE L'EUROPE

Ospatu gurekin Hizkuntzen Europako Eguna!

Zer aurki dezaket HEGren webgunean?

- HEG ospatzeko mundu osoan egiten diren jardueren egutegia.
- HEGen gaineko informazioa, gaur egun 20 hizkuntza baino gehiagotan.
- Hizkuntzen gaineko datuak eta zifrak.
- Materialak irakasleendako / ekitaldien antolatzaileendako (ekitaldien adibideak, HEGek egindako jarduerak).
- On-line jokoak, hizkuntza batean baino gehiagotan zure ezagutzak eta trebetasunak frogatzeko.
- Esamoldeak, hitz dibertigarriak, hitz aizunak, hitzik luzeak, palindromoak, aho-korapiloak, eta Europako hizkuntza ikuspegiko aberastasunaren bestelako adibide, antzekotasun eta desberdintasun asko.
- Bozketa sistema, ekitaldirik berritzaileena hautatzeko.

Nola parte har dezaket Egunean?

Estatu kideek, erakundeek edo norbanakoek askatasun osoa dute jarduerak antolatzeko edo haiek antolatzen laguntzeko eta, hartara, HEGen webgunea eta eguna sustatzeko materiala erabil dezakete.

ZENBAIT IDEIA:

- Festa, kafe-solasaldi, torneo, afari... bat antolatzea.
- Hizkuntzen gaineko blog bati hasiera ematea.
- E-book, e-magazine bat idaztea.
- Irakasleendako / eskolarako / auzokoendako... hizkuntza lehiaketa prestatzea.
- Lehiaketa edo joko bat antolatzea postalen, posterren, bideoen, argazkien, idazlanen edo kantuen gainean.

Susta ezazu zure ekitaldia HEGen webguneko datu-basean erregistratuz

Irakasleendako ideia edo material gehiago:
<http://edl.ecml.at/teachshare>.

Nork koordinatzen du Eguna?

Europako Kontseiluak koordinatzen du Hizkuntzen Europako Eguna Europako Kontseiluko Hizkuntza Politikako Unitatearen (Estrasburgo) eta Hizkuntza Modernoen Europako Zentroaren bitartez (Graz).

Berrogei herritaldetan baino gehiagotan bitarteko pertsonak babesten dute HEGa eta sustapen materiala banatzen eta Eguna bultzatzen dute.

Zure bitarteko nazionala:

M^a Rosario Gutiérrez Felipe
Asesora técnica docente
Ministerio de Educación, Cultura y Deporte
S.G. Promoción Exterior Educativa
Paseo del Prado nº28, 5^a planta
e-mail: mrosario.gutierrez@mece.es
Tf.: +34 91 506 56 90
Fax: +34 91 506 57 05

